ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA, AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK SA-REN ETA GESTIÓN DE CENTRALES DEL AÑARBE SA-REN ENERGIA ELEKTRIKOKO HORNIDURAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUENA

Donostia, 2022ko uztailaren 29a

ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA, AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK SA-REN ETA GESTIÓN DE CENTRALES DEL AÑARBE SA-REN ENERGIA ELEKTRIKOKO HORNIDURA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKI BIDEZKOA, ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA[1]

Prozedura honen xedea da Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAk eta Gestión de Centrales del Añarbe SAk kontratista bat hautatzea, Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honen **Karatulako** (aurrerantzean, Karatula) **1. puntuan** adierazitako hornidura-zerbitzuak egiteko.

Xede hori Agiri honen arabera, Baldintza Teknikoen Agiriaren arabera eta kontratistaren proposamenaren arabera beteko da.

Kontratuaren zati desberdinak lotetan banatuta eta modu independentean egitea aurreikusten den kasuetarako, alderdi hauek adierazten dira **Karatulako 1. puntuan**: kontratua zein lote zehatzetan banatzen den; hala badagokio, lizitatzaile berak zenbat lotetarako eskaintza aurkez dezakeen; hala badagokio, lizitatzaile bakoitzari zenbat lote eslei dakiokeen; kasu bakoitzean zer alderdi zehazten diren.

Karatulako 1. puntuan zehazten da kontratuaren CPV kodea.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEAK ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

2.1. ERAKUNDE KONTRATATZAILEAK

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA (aurrerantzean, AUSA) eta Gestión de Centrales del Añarbe SA (aurrerantzean, GECASA) sozietateak dira erakunde kontratatzaileak.

AUSAk bere kontura eta GECASAren kontura administratuko du prozedura.

Hartara:

- AUSAk soilik egingo ditu bi erakunde kontratatzaileekin egin beharreko kontratuak prestatzeko eta eskaintzarik onena identifikatzeko jarduerak.

- Ebaluazio Batzordeak eskaintzarik onena identifikatu ostean, eta AUSAk GECASAri prozeduraren eta tramiteen egoerari buruzko txosten deskribatzailea

[1] Agiri honetan egiten den “kontratuaren” erreferentzia ulertuko da SOCIEDAD AGUAS DEL AÑARBE-AÑARBEKO URAK SArekin eta GESTIÓN DE CENTRALES DEL AÑARBE SArekin sinatu beharreko kontratuetako bakoitzari dagokiola.

egin eta dokumentazioa eman ostean, AUSAk eta GECASAk bereizita egingo dituzte ondorengo tramite guztiak, eta eduki bereko bi kontratu sinatuko dituzte, horietako bakoitzarekin.

Hau da, Ebaluazio Batzordeak eskaintzarik onena identifikatu ondoren, Administrazio Baldintza Partikularren Agiriko 17. baldintzan eskatzen den dokumentazioaren errekerimendua, kontratuen esleipena, esleipenaren jakinarazpena eta argitarapena eta kontratuen sinadura bi erakunde kontratatzaileetako bakoitzaren banakakoa izango dela ulertuko da.

Kontratuak sinatzen diren unetik aurrera, eskubideen eta betebeharren araubidea bi erakunde kontratatzaileetako bakoitzaren banakakoa izango da, kontratuen betearazpen eta iraungitze faseei dagokien orotan.

Horrela, bada, lizitazio honen xede den hornidura AUSAk edo GECASAk eskatu eta kontratatu ahal izango dute, batak zein besteak, eta eskatu dituen erakundeari fakturatuko zaizkio eta hark ordaindu beharko du.

Horrenbestez, honela ulertu beharko da Agiri hauetan “AUSA”ri edo “erakunde kontratatzaile”ari egiten zaion erreferentzia orokor oro:

- Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA sozietateari, bi erakunde kontratatzaileetako bakoitzarekin egin beharreko kontratuak prestatu eta esleitzeko jarduerei dagokienez (zehazki, kontratuak prestatu eta esleitzeko jarduerak, Ebaluazio Batzordeak eskaintzarik onena identifikatu arte).

- Erakundeetako edozeini, batari zein besteari, hau da, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA sozietateari eta Gestión de Centros del Añarbe SA sozietateari, Ebaluazio Batzordeak eskaintza ekonomikorik onuragarriena identifikatu ondorengo faseei dagokienez, hau da: Administrazio Baldintza Partikularren Agiriko 17. baldintzan eskatutako dokumentazioaren errekerimendua; kontratuen esleipena; esleipenaren jakinarazpena eta argitarapena; eta kontratuen formalizazioa, sinadura, betearazpena eta suntsipena.

2.2 KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa Karatulako 2. puntuan adierazitakoa da, eta kontratazio-organo horrek —hala badagokio eta aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko arauen arabera— berariazko ahalmena eman ahal izango die kontratuarekin lotutako jarduketa zehatzak egikaritzeko egoki iruditzen zaizkion pertsonei.

3. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko zaio oro har kalitate/prezio erlaziorik onena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzaileari, betiere Agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera (aurrerantzean, eskaintzarik onena).

4. ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak aurkezteko aukera jasotzen da, hala badagokio, **Karatulako 3. puntuan**.

Aldaerak onartuz gero, **Karatulako 3. puntuak** aditzera ematen ditu aldaeren gutxieneko betekizunak, modalitateak eta ezaugarriak, baita kontratuaren xedearekin duten lotura ere.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Dokumentu hauek dute kontratu izaera:

- Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honek eta honen Karatulak.
- Baldintza Teknikoen Agiriak.
- Esleipendunak aurkezten duen eskaintzak[2].
- **Karatulako 4. puntuan** adierazten den beste edozein dokumentaziok.

Kontratua formalizatzeko egintzan sinatu beharko ditu esleipendunak dokumentu horiek, horiekin ados dagoen froga gisa.

6. KONTRATUAREN EPEA ETA ONDASUNAK EMATEKO LEKUA

Karatulako 5. puntuan adierazten da kontratuaren iraupen-epea.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOKO OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Karatulako 6.1. puntuan adierazten da lizitazioko oinarrizko aurrekontua.

Bestalde, kontratuaren prezioa ere **Karatulako 6.1. puntuan** adierazten da.

Kontratuaren prezio horretan sartuko dira kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren kostu guztiak, besteak beste honako hauek —azalpen huts gisa eta zentzu mugatzailerik gabe—:

---

[2] Agiri honetan egiten den “esleipendun”aren erreferentzia ulertuko da lote bakoitzeko esleipendunei dagokiela.

- Kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitakoaren arabera —ez da a posteriori onartuko azken prezioan aldez aurretik aintzat hartu behar ziren kontzeptuen araberako fakturaziorik—.

- Kontratua egikaritzearen berezko edozein kontzeptu eta kontratua egikaritzeko erabilitako langileei dagozkien gastu guztiak (hau da, ordainsariak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako lanak, bajen edo gaixotasunen ondoriozko ordezkapenak, banakako istripuen aseguruak, eta abar), baita tributu guztiak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak ere.

- Erakunde kontratatzaileak zehazten dituen lan- edo informazio-bilera guztietara bertaratzea, kontratua behar bezala garatu eta bete ahal izateko.

- **Karatularen 6.1. puntuan** zerrendatzen den beste edozein kontzeptu.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikuluaren ondorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia **Karatulako 6.2. puntuan** adierazitakoa da —3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, presako neurriena eta zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak (aurrerantzean SBELD)—.

Balio zenbatetsi hori SBELDaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Aurreikuspen horrek ez du erakunde kontratatzailearentzako konpromiso zehatzik sortzen.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

AUSAk eta GECASAk enpresa kontratistari egin beharreko ordainketa honela zehaztuko da:

- Potentzia ordainduko da hornidura-puntu bakoitzari dagokion potentziaren arabera eta, hala badagokio, aldi bakoitzaren arabera, betiere potentziaren kontzeptuan indarrean dauden prezioak aplikatuta.

- Energia ordainduko da hornidura-puntu bakoitzari hornitutako kWh-ei aldi bakoitzean aplikatuko zaizkien prezioen arabera — kontratuaren esleipendunak eskainitako koefizienteei baldintza-agiri hauen karatulako 12. puntuan deskribatutako formula aplikatzearen emaitzazkoak izango dira prezio horiek— .Ordainsari multzo eta tarifa-aldi bakoitzean zehaztuko dira prezioak.

- Energiari dagokionez, halaber, handizkakoen merkatuan elektrizitatearen prezioa murrizteko ekoizpen-kostuak doituko dituen (2023ko maiatzaren 31 arte gehienez) mekanismoa aldi baterako ezartzen duen Errege Lege Dekretuak (maiatzaren 13ko 10/2022 Errege Lege Dekretua) arautzen du kontratuetako doikuntza-mekanismo hori likidatzeko prozedura. Ildo horretatik, 10/2022 Errege Lege Dekretu horretan ezarritako doikuntza-mekanismoa indarrean dagoen aldiko kontsumoei jasanaraziko zaie horren ondoriozko kostua; horretarako, merkatuko operadoreak (OMIE) egunero argitaratzen dituen ordu-prezioak aplikatuko zaizkio hornidura-puntu bakoitzeko ordu-kargaren kurbari.

- Une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera fakturatuko dira elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko sareetara sartzeko bidesariak, sistema elektrikoaren karguak, gehiegizko potentzia, energia erreaktiboa, kontagailuen alokairua— hala badagokio—, elektrizitatearen gaineko zerga eta BEZa.

Enpresa kontratistak eskubidea izango du hilero kobratzeko prezioa, betiere dagokion faktura indarreko araudiaren arabera egin ondoren. Faktura hori erakunde kontratatzailearen zerbitzu teknikoek eta administrazio-zerbitzuek baliozkotu beharko dute.

Hornidura-puntu bakoitzari dagozkion fakturak hilero egingo dira, eta faktura horietan kontuan hartuko dira hornitutako energia elektrikoaren bolumenak eta sareetarako sarrerak. Horrez gain, energia erreaktiboaren osagarria, potentzia-soberakinak, ekipamenduen alokairua, elektrizitatearen gaineko zerga eta BEZa banakatuko dira.

Enpresa kontratistak hornidura-puntu bakoitzerako egindako fakturetan, kontzeptu hauek jasoko dira gutxienez: energia aktiboaren kontsumoa, energia erreaktiboaren kontsumoa eta energia-kostuak, hala badagokio, kontratazio-aldi bakoitzeko; orduko potentzia-kostuak; elektrizitate-zerga; BEZa; errekarguak, hala badagokio, gehiegizko potentziagatik edo erreaktiboagatik; eta neurketa-ekipamenduen alokairua.

Horrez gain, fakturetan kontsumoaren historia ere sartuko da, aurreko hilabeteetan egindako kontsumoa ere ikus dadin. Hasiera batean datu horiek ez baditu, enpresa kontratistak kontratuak indarra hartzen duenetik dituen historikoak sartuko ditu.

Lote bakoitzeko enpresa kontratistak hornitutako elektrizitatea iturri berriztagarrietatik aterako da oso-osorik; beraz, AUSA eta GECASAren hornidura-puntuetara hornitutako energia jatorri berriztagarrikoa dela bermatuko duten ziurtagiriak (CNMCk emandakoak) aurkeztu beharko dituzte esleipendunek, eskura izan bezain laster.

Kostu eta kontsumo guztiak, gainera, AUSArentzat edo GECASArentzat eskuragarri egongo dira enpresa kontratistaren web-orrian, eta, irakurketak egin ahala, gehituko dira datu berriak.

Faktura bakoitza hogeita hamar eguneko epean ordainduko da, AUSAko eta GECASAko zerbitzu teknikoek onartu ondoren. Ordainketa horiek transferentzia bidez edo banku-helbideratze bidez egingo dira, AUSAk eta GECASAk hautatzen dutenaren arabera.

Kontratu bakoitzaren indarraldiaren barruan, kontratuaren prezioari aplikatzekoak izango zaizkio osagai arautu hauetan eragina duten aldaketak: sarbide-tarifetan, ahalmenagatiko ordainketetan, etengarritasunean, merkatuko operadorearen ordainketan, sistemaren operadorearen ordainketan eta galera-koefizienteetan eragina dutenak (kasu horretan ez dira kontuan hartuko Sistemaren Operadoreak argitaratutako ordutegi-doikuntzak), baita sektore elektrikoko araudiak erregulatutako kontzeptu berriak ere, kontsumitzaileei zalantzarik gabe aplikatzekoak diren heinean.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatulako 8. puntuan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

10. PUBLIZITATEA

Karatulako 11. puntuan xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Lote bakoitzeko eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du, **Karatulako 9. puntuan** adierazitako zenbatekoarekin.

Lote bakoitzeko eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak aipatutako behin betiko bermea eratu dela egiaztatu beharko du 10 egun balioduneko epean, kontratazio-organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bermea ondorio horietarako aplikatzekoa den Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 108. artikuluan aurreikusitako moduren batean eratu ahal izango da, eta, horretarako, ez da Gordailu Kutxa Orokorrean sortzeko beharrik izango —9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL)—. Abal moduan eratuz gero, abala Agiri honen **I. eranskin** gisa txertatutako ereduari egokituko zaio.

Bermea eratzearen egiaztapena bitarteko elektroniko bidez egin ahal izango da.

Kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak behin betiko bermearen gainean ordaintzen badira, kontratistak berme hori dagokion zenbatekoan berrezarri

edo handitu beharko du, eta, horretarako, egikaritzen denetik hamabost egun naturaleko epea izango du; hala egin ezean, kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketa baten ondorioz, kontratuaren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea egokitu beharko du, aldatutako prezio berriarekiko proportzio egokia izan dezan. Kontratistak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea aldatzeko, aldaketa-erabakia jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

Baldintza honetan aurreikusten ez den orori dagokionez, SPKLaren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Jarduteko gaitasun osoa duten pertsona naturalek edo juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek, kontratatu ahal izango dute erakunde kontratatzailearekin, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimena egiaztatzen badute.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren mende dauden prestazioak egiteko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izan ahal izango dira, baina soilik kontratu horren prestazioak sartzen badira haien estatutuen edo eratze-arauen arabera berezkoak zaizkien helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan.

Enpresaburuen elkarteek kontratua egin ahal izango dute erakunde kontratatzailearekin; horretarako, enpresaburuen aldi baterako elkarte bat eratu beharko dute. Ez da beharrezkoa izango elkarte hori eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua haien alde esleitzen den arte. Aldi baterako elkartea osatzen duten enpresaburuek elkarte hori osatzen dutenen izenak, inguruabarrak eta parte-hartzea adierazi beharko dituzte, baita, kontratuaren esleipendun izanez gero, aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere. Hori guztia SBELDaren 31. artikuluan aurreikusten diren baldintzetan egingo dute.

Lizitatzaileek **Karatulako 10. puntuan** adierazitako kaudimen ekonomikoko, finantzarioko eta profesional edo teknikoko gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte.

Hala badagokie, lizitatzaileek **Karatulako 10. puntuan** adierazitako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxiki beharko dizkiote, gutxienez, kontratua egikaritzeari.

Horrez gain, lizitatzaileek **Karatulako 10. puntuan** adierazitako betekizun espezifikoak bete beharko dituzte.

Lizitatzaileei giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk kontratua egikaritzeari atxikitzeko konpromisoa eskatzen bazaie, konpromiso hori funtsezko kontratu-betebehartzat hartuko da SBELDaren 105.3 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, betebehar hori ez betetzea kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

Kontratistak kontratua egikaritzeari atxikitako pertsona bere kabuz aldatzen badu, erakunde kontratatzaileak, kontratua deuseztatzearen ordez, konpromisopeko pertsona hori berehala itzultzea eskatu ahal izango du; bestela, kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik hori ezinezkoa bada, prestakuntza eta esperientzia bereko giza baliabideekin berehala ordezkatzea eskatu ahal izango du. Dena dela, giza baliabide horiek erakunde kontratatzailearen berariazko adostasuna izan beharko dute.

Eskatutako kaudimena egiaztatzean eta/edo eskatutako baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzean, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu ahal izango dira —haiekin dituzten loturen izaera juridikoa edozein izanik ere—, baldin eta frogatzen badute kontratuaren indarraldi osoan benetan erabilgarri izango dituztela kaudimen eta/edo baliabide horiek, baita baliatzen duten erakunde horrek ez duela kontratatzeko debekurik.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzaileek hala adierazi beharko dute Gutun-azal bakarrean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki, Kontratazio Agiri Europar Bakarraren II. zatiko C atalean).

Horrez gain, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu, frogatu beharko du beharrezko baliabideak izango dituela, eta, horretarako, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko du (**II. eranskinean** jasotako ereduaren araberakoa).

Eskatzen den kaudimena eta/edo eskatzen den baliabideen atxikitze-konpromisoa egiazta dadin, berriz, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak baliatzen duen erakundeak —edo erakundeek— notarioari eman beharko dio —edo diote— konpromiso hori, eta idazki horretan hau adierazi beharko dute: ezagutzen dutela zer baldintza dituen lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioak, eta atxiki beharreko kaudimena eta/edo baliabideak ere badituztela —hori egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dituzte, 17. baldintzan aurreikusitako moduan—. Era berean, esleipendun izanez gero, kontratua egikaritzeko behar diren baliabideak lizitatzailearen esku jartzeko borondate ezeztaezina dutela eman beharko dute aditzera (berariaz onartuko da Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa, eta AUSAk berariaz baimendu beharko du hura ordeztea edo aldatzea). Idazki hori aurkeztu eta lizitatzailea esleipendun suertatzen bada, erakunde kontratatzaileak konpromiso hori onartzearen ondorioak izango ditu.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak 10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du konpromiso hori, kontratazio-organoak horretarako egindako

errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira baldintza honetan aipatzen diren kontratatzeko gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruzko inguruabarrak, eta kontratua perfekzionatzeko unean iraun beharko dute inguruabar horiek.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIETARA ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIRA SARBIDEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri izango dira lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik, eta proposamenak erakunde kontratatzailearen profilean aurkezteko epe osoan egongo dira eskuragarri.

Agirietara eta gainerako dokumentazio osagarrietara baliabide ez elektronikoen bidez sartzeko aukera ematen bada, **Karatulako 12.1. puntuan** adierazi beharko da hori.

13.2. AURKEZPEN-BALIABIDEAK

Proposamenak baliabide elektroniko bidez aurkeztuko dira, SBELDaren 61. artikuluan eta SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarriaren 1. puntuan ezarritako betekizunen arabera, salbu eta SBELDaren 61. artikuluaren 3. atalean aurreikusten den inguruabarretakoren bat gertatzen bada eta **Karatulako 12.1. puntuan** hala adierazten bada.

Proposamenak modu elektronikoan aurkezteko behar diren zehaztapen teknikoak eta informazioa —data baliozkotzea eta zifratzea barne— Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren web-orrian daude adierazita, honako helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus**.**

13.3. GUTUN-AZAL BAKARRAREN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak Agiri honetara eta Karatulara, Baldintza Teknikoen Agirira eta gainerako kontratu-dokumentaziora egokitu beharko dira, eta proposamenak aurkezteak esanahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen duela baldintza horien guztien edukia, salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Gutun-azal honek jarraian adierazten diren dokumentuak izango ditu, eta gutun-azal horretan jasotako dokumentuen zerrenda zenbakitua ere izango du.

Gutun-azal bakarra. "AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEARI ETA FORMULAK ERABILITA EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

A) AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, Agiri honi **III. eranskin** gisa erantsi zaion Kontratazio Agiri Europar Bakarraren (aurrerantzean, KAEB) formularioari jarraituko diona eta honen arabera beteko dena:

   - Kontratazio Agiri Europar Bakarraren formulario normalizatua ezartzen duen Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 Betearazpen Erregelamenduaren (BE) I. Eranskinean jasotako jarraibideen arabera bete beharko da.

   - Zehazki, Kontratazio Agiri Europar Bakarraren “IV. Hautespen-irizpideak” zatiarekin lotuta, lizitatzaileek “a” atala soilik bete beharko dute: “Hautespen-irizpide guztiei buruzko adierazpen globala”.

   - Agiri honen 12. baldintzarekin bat etorriz, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimena eta/edo baliabideak baliatzen baditu, horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko du, eta adierazpen horretan jasoko da Kontratazio Agiri Europar Bakarraren II. zatiko A atalean ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B atalean ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa") eskatzen den informazioa, baita III. zatian eskatzen den informazioa ere.

   - Zenbait enpresaburu aldi baterako elkarte batean elkartuta lehiatzen diren kasu guztietan, enpresa parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, eta bertan Kontratazio Agiri Europar Bakarraren (gaztelaniaz DEUC) II. zatitik V. zatira eskatzen den informazioa jasoko da.

2. **Karatulako 10. puntuaren** arabera, kontratua egikaritze aldera giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk gutxienez atxikitzea eskatzen bada, lizitatzaileek kontratua egikari dadin giza baliabide eta/edo baliabide material horiek atxikiko duten konpromisoa aurkeztu beharko dute, Agiri honetan **IV. eranskin** gisa jasotako ereduaren arabera.

3. Aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresaburuek elkartea osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, baita bakoitzak elkartean duen partaidetza eta, esleipendun suertatuz gero, aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa ere. Aldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresaburuek betebehar solidarioa izango dute, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute. Ordezkari horrek behar besteko ahalordea izango du kontratuaren ondoriozko eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko —kontratua azkendu arte—, betiere zenbateko handiko kobrantzetarako eta ordainketetarako eman ditzaketen ahalorde mankomunatuak alde batera utzi gabe.

4. Atzerriko enpresek, bestalde, Espainiako maila guztietako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adieraziko duen erantzukizunpeko adierazpen zehatza aurkeztu beharko dute; hartara, Espainiako epaitegien eta auzitegien mende jarriko dira kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta egoki dakiekeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo diote, hala badagokio.

OHARRA:

Erakunde kontratatzaileak lizitazio-prozeduraren edozein unetan eska diezaieke lizitatzaileei egiaztagiri guztiak edo batzuk aurkeztea, baldin eta 1. puntuan aipatutako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak daudela uste badu edo prozedura behar bezala garatzen dela bermatzeko beharrezkoa bada.

Hala ere, eta enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean inskribatuta badago enpresaren espediente birtual gisa, dokumentuak modu elektronikoan biltegiratzeko sistema gisa edo aurre-kalifikazioko sistema gisa, eta horiek aipatutako organoek doan eskura baditzakete, ez du zertan aurkeztu leku horietan inskribatutako datuen egiaztagiririk edo bestelako frogagiririk.

B) FORMULAK ERABILITA EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”

Lizitatzaileek formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, betiere Agiri honi eransten zaizkion ereduen arabera (**V. eranskina** 1. loterako eta **VI. eranskina** 2. loterako).

Erakunde kontratatzaileak, bestalde, Gutun-azal bakarrean jasotako dokumentuen edukia egiazkoa dela egiaztatu ahal izango du, bai esleipena egin aurretik, bai esleipena egin ondoren, bai kontratua egin bitartean. Enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak badira, ulertuko da kontratua baliogabe daitekeela, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzeagatik.

14. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpideak, dagokien haztapenarekin batera, **Karatulako 13. puntuan** adierazitakoak izango dira.

15. EBALUAZIO-BATZORDEA

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzorde baten laguntza izango du. **Karatulako 14. puntuan** adierazitako kideek osatuko dute batzorde hori.

16. PROPOSAMENEN IREKIERA

Gutun-azal bakarra Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikoko aplikazioaren bidez irekiko da. Lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie gutun-azala irekitzeko eguna, ordua eta lekua (proposamenak bitarteko elektronikoz aurkezten direnean izan ezik), eta erakunde kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Nolanahi ere, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta berehala irekiko da gutun-azal bakarra. Ekitaldi berean egiaztatuko da aurreko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa aurkeztu dela eta proposatutako koefizienteak irakurriko dira.

Aurkeztutako aurretiazko betekizunak betetzeari buruzko dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak antzemanez gero, erakunde kontratatzaileak lizitatzaileari akats horiek zuzen ditzan eskatuko dio.

Ebaluazio Batzordeak 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako kausaren batean dauden proposamenak baztertuko ditu, eta aurkeztutako proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, beheranzko hurrenkeran sailkatuta, **Karatulako 13. puntuan** ezarritako esleipen-irizpideen arabera, eta eskaintzarik onena identifikatuko du.

Proposamena aurkeztu aurretik, bidezko iruditzen zaizkion txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza normala baino nabarmen baxuagoa dela uste bada —**Karatulako 13. puntuan** adierazitako parametroen arabera—, Ebaluazio Batzordeak SBELDaren 69. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Esleipen-proposamenak ez du proposatzen den lizitatzailearen aldeko inolako eskubiderik sortzen erakunde kontratatzailearen aurrean. Dena dela, Kontratazio Organoak ez duenean egindako proposamenaren arabera esleitzen kontratua, hartu duen erabakia arrazoitu beharko du.

17. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Esleipenerako lizitatzailea aukeratzeko garaian, Kontratazio Organoa, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenari lotu beharko zaio. Hala egin ezean, Kontratazio Organoak proposamenari ez jarraitzearen erabakia arrazoitu beharko du, eta proposamenen behin betiko sailkapena egingo du.

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzordearen proposamena onartu ondoren, erakunde kontratatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio honako dokumentazio hau aurkez dezan, eta hamar egun balioduneko epea emango dio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean, erakunde kontratatzailearekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa eta Agiri honetako 12. baldintzan eskatzen diren gaitasun, kaudimen eta kontratatzeko debekurik ezaren betekizun guztiak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa, ondoren adierazten den moduan.

   legAldi baterako elkarte batean parte hartu nahi duten enpresaburuek egin badute proposamena, elkarte hori osatu behar duten enpresa guztiei buruzkoa izango da dokumentazio hori.

   (i) Lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak:

   - Pertsona juridiko diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatuko da eratze-eskrituraren edo -dokumentuaren bidez, estatutuen bidez edo eratze-egintzaren bidez. Eskritura edo agiri horietan jasoarazi beharko dira enpresaburuen jarduera gidatzen duten arauak, eta, hala badagokio, behar bezala erregistratuta egongo dira dagokion erregistro publikoan, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

   - Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatuko da enpresaburu horiek ezarrita dauden Estatuko legeriari jarraikiz dagokien erregistroan inskribatuta egotearen bidez, edo zinpeko adierazpen baten bidez edo ziurtagiri baten bidez, betiere aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenen arabera.

   - Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion Estatuan duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostenaren bidez egiaztatuko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-esparruko bulego kontsularraren txostenaren bidez. Txosten horren bidez justifikatu beharko da, halaber, Espainiako enpresek ere atzerriko enpresaren jatorrizko Estatuan parte har dezaketela Administrazioko eta sektore publikoko kontratazioetan, baita SBELDaren 5. artikuluan zerrendatutakoekin pareka daitezkeen sektore publikoko entitateekin, organismoekin edo erakundeekin egiten diren kontratazioetan ere, eta, gainera, antzeko moduan egin dezaketela.

   - Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna dagokien estatuko Nortasun Agiri Nazionala edo baliokidea aurkeztuta egiaztatuko da.

   - Beste pertsona baten izenean bertaratzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren

kopia aurkeztuko dute, baita horretarako behar besteko ahalordea ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du —baldin eta hala eskatzen bada Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan— edo, hala badagokio, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan.

Dokumentazio hori guztia legeztatua aurkeztuko da, dokumentazioa hartzeko gaitutako organoaren sinadura elektroniko aitortuarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek Erregistro horietako abokatu arduradunak emandako indarreko inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahal izango dute, (i) atal honetan eskatzen den dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko da, eta bertan adieraziko da dokumentuan islatutako inguruabarrak ez direla aldatu.

(ii) Agiri honetako 12. baldintzan eskatzen den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa.

- <u>Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa.</u> Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honela egiaztatuko da:

  - Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailututako urteko kontuen bidez, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututakoen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banako enpresaburuek, bestalde, urteko negozio-bolumena egiaztatuko dute, Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuei eta urteko kontuen liburuei begiratuta.

  - Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, energia elektrikoaren horniduraren arloko negozio-bolumena adieraziko du.

- <u>Kaudimen teknikoa edo profesionala.</u> Hala badagokio, eskatzen den kaudimena bezeroen zerrenda baten bidez egiaztatuko da; zehazki, karatulan eskatutakoa betetzen den bezeroen zerrendaren bidez. Zerrenda horretan, bezeroaren izen soziala, harremanetarako pertsona eta harremanetan jartzeko modua eta hornidura-puntuen kopurua adieraziko dira. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira hornidurak; aitzitik, hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako

ziurtagiri baten bidez, edo, halakorik ezean, lizitatzailearen adierazpen baten bidez eta haren esku dauden eta prestazioa egin dela egiaztatzen duten dokumentuen bidez egiaztatuko dira.

Horrez gain, azken 3 urteetako edozeinetan merkaturatutako elektrizitate kopurua lizitatzailearen aitorpenaren bidez egiaztatuko da.

AUSAk eta GECASAk eskubide osoa dute bidezko egiaztapenak egiteko eta eskatutako kaudimena betetzeari buruzko beharrezkoa informazioa eskatzeko.

Kontratista sortu berri den enpresa bat bada, hau da, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna badu, haren kaudimen teknikoa Karatulako 10. puntuan adierazitako baliabideen bidez egiaztatuko da.

(iii) Agiri honetan **VI. eranskin** gisa txertatutako ereduaren araberako erantzukizunpeko adierazpena. Adierazpen horren bidez, lizitatzaileak adierazten du ez dagoela, ez bere kabuz ez hedaduraz, SPKLaren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetako batean ere sartuta (SBELDaren 30. artikulua berariaz adierazita).

(iv) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

(v) **Karatulako 10. puntuan** adierazten diren betekizun espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

2. Hala badagokio, kontratuari atxikitzeko konprometitutako giza baliabideak eta baliabide materialak benetan erabilgarri dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

(i) Hala badagokio, kontratua egikaritzeari atxikitzeko konprometitutako giza baliabideei dagokienez, hautatutako lizitatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua egikaritzera atxikitako lantalde osoaren identifikazio nominala, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten curriculum vitaeko fitxekin batera:

1. Titulazio akademiko ofiziala.

2. Dagokien esparruko esperientzia.

3. Erakunde kontratatzaileak, hala badagokio, eskatzen duen beste edozein alderdi.

- Giza baliabide guztiak benetan erabilgarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Datuak babestearen arloan aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta giza baliabideei buruzko dokumentazio horretan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, (i) datu horiek bildu eta erabiltzeak ekarriko du lizitatzaile horrek datuak tratatzea, tratamenduaren arduraduna den aldetik; eta (ii) erakunde kontratatzaileari emateak ekarriko du datuak komunikatzea, lagatzaile gisa —baldintza honetan aurreikusitakoa betez—.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzaileak bete beharko ditu aurreko paragrafoan aipatutako datuen tratamenduari eta komunikazioari buruzko datuak babesteko araudiak ezarritako betebeharrak. Zehazki, eta tratamenduaren arduradun gisa bete behar dituen beste betebehar guztiak alde batera utzi gabe, hautatutako lizitatzaileak —bere erantzukizun esklusiboarekin— aipatu den datu-komunikazioa gaitzeko interesdunen baimen informatua lortu beharko du. Alderdi hori behar bezala egiaztatu beharko du erakunde kontratatzailearen aurrean, hala eskatzen zaionean.

(ii) Hala badagokio, eta kontratua egikaritzeari atxikitzeko konprometitutako baliabide materialei dagokienez, hautatutako lizitatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua egikaritzeari atxikitako baliabide materialen identifikazioa, eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

- Baliabide horiek guztiak benetan erabilgarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Erakunde kontratatzaileak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko eskubidea edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatzeko eskubidea, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatze aldera.

3. Agiri honetako 11. Baldintzan aurreikusitako behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario-akta, baldin eta lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi badu, **II. eranskinean** jasotako ereduaren arabera —eskatzen zaion kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatze aldera—.

5. Hala badagokio, legez aldi baterako enpresa-elkarte gisa eratu dela egiaztatzea. Horretarako, aldi baterako elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta horrek kontratuaren ondoriozko eskubideak

baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu, harik eta kontratua azkendu arte.

6. Baldintza-agiri hauen Karatulako 20. atalean aipatzen den aseguru-poliza kontratatu izanaren egiaztagiria.

Erakunde kontratatzaileak beretzat gordetzen du egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko eskubidea edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio gehigarria eskatzeko eskubidea, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatze aldera.

Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak antzemanez gero, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea eman ahal izango dio lizitatzaileari akats horiek zuzen ditzan.

Dokumentazio-errekerimendua adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, edo aurkeztutako dokumentazioan zuzendu ezin diren akatsak edo omisioak badaude, lizitatzaileak eskaintzan atzera egin duela ulertuko da. Hala gertatuz gero, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko hiru (% 3) eskatuko zaio (BEZ kanpo), eta dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, hau da, eskaintzen sailkapenean finkatutako hurrenkeraren arabera hurrengoari.

Kontratazio-organoak, ebazpen arrazoitu baten bidez, erabakiko du esleipena, eta erabaki hori hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko die, haiek jakinarazpen elektronikoak jasotzeko adierazitako helbide elektronikoaren bidez. Horrez gain, 15 egun naturaleko epean argitaratu beharko da ebazpena erakunde kontratatzailearen profilean.

18. KONTRATUAREN PERFEKZIOA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratuak formalizazioaren bidez perfekzionatuko dira.

Kontratuak dokumentu pribatuetan formalizatuko dira, eta dokumentu horiek lizitazioaren baldintzetara egokituko dira zehatz-mehatz. Kontratuak formalizatuko diren dokumentuetan ezin izango da inola ere barnean hartu kontratazioaren baldintzak aldatzea eragingo duen klausularik.

Esleipendunak, hala ere, kontratuak eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, baina bere kontura izango dira horren gastuak.

Eduki bera izango duten bi kontratu sinatuko dira AUSArekin eta GECASArekin.

Esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidali, eta 15 egun balioduneko epea igaro ondoren formalizatuko da kontratua.

Kontratuen formalizazioa dagokien kontratuarekin batera argitaratuko da; kontratua erakunde kontratatzailearen profilean eta Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean

perfekzionatu eta gehienez hamabost eguneko epean argitaratuko da, SBELDaren 79. artikuluan jasotako baldintzetan.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratuak ez badira adierazitako epean formalizatu, kontratuak hurrengo lizitatzaileari esleituko zaizkio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera, betiere Agiri honetako 17. Baldintzan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du, eta hari egokituko zaio kontratua nola egikaritzen den gainbegiratzea eta itundutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea, betiere erakunde kontratatzaileak esleitzen dizkion ahalmenen esparruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratatzaileari lotua edo harekin zerikusirik ez duena.

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

20. KONTRATUA EGIKARITZEA

Kontratua baldintza hauei jarraituz egikarituko da:

- Kontratu bakoitza egikaritzean, zorroztasunez lotu beharko zaie bere terminoei eta baldintzei, Administrazio Baldintza Partikularren Agirian eta bere Karatulan, Baldintza Teknikoen Agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatzen denaren arabera. Horrez gain, sektore elektrikoan aplikatzekoa den araudiari ere lotu beharko zaio.

  Enpresa kontratistak ezin izango dio hornidurari aplikatu kontratua esleitzean aintzat hartu ziren baldintzez bestelako baldintzarik, ezta Administrazio Baldintza Partikularren Agirian, Baldintza Teknikoen Agirian edo sektore publikoari aplikatzekoa zaion araudian ezarritakoaren kontrakorik ere.

- Enpresa kontratista bakoitzaren arriskuan eta menturan egikarituko dira kontratuak.

- Kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango horniduraren mende dauden ondasunetan AUSAri entregatu aurretik sortutako galera, matxura edo kalteen ondorioz.

- AUSAk eta GECASAk edozein unetan, eta edozein baliabide erabiliz, kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu ahal izango dute kontratuko

betebeharrak behar bezala betetzen direla eta kontratua egoki egikaritzen dela.

Enpresa kontratistak beharrezkoak diren eragiketa guztiak egin beharko ditu kontratuaren xede den hornidura behar bezala burutu dadin, eta behar diren tramite eta kudeaketa guztiak egin beharko ditu kasuan kasuko administrazio-organoetan eta prozesuan parte hartzen duten gainerako subjektuetan, energia elektrikoaren hornidurari ekin dakion. Era berean, enpresa kontratistaren betebeharra izango da Baldintza Teknikoen Agirian ezartzen diren zerbitzu gehigarriak egitea; nolanahi ere, horien kostua kontratuaren prezioan sartutzat hartuko da.

Enpresa kontratistak AUSAri edo GECASAri emango dizkie eskatzen dizkioten hornidurari buruzko datu guztiak; behar den laguntza emango die, kostu gehigarririk gabe, eta kontratatutako hornidurarekin lotzen den dokumentazio teknikoa, administraziokoa edo bestelako edozein dokumentazio eskuratzeko aukera emango die.

- Enpresa kontratistak unean-unean indarrean dagoen araudi sektorialak eskatzen dituen aseguru-polizak kontratatu beharko ditu.

- Kontratistak dagozkion betebeharrak bete beharko ditu, bai datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean, DBEO) aurreikusitakoaren arabera hari dagozkionak, bai kontratua indarrean dagoen bitartean datuak babesteari buruz aplikatzekoa den beste edozein arautan aurreikusitakoaren arabera hari dagozkionak, betiere bere jardueren esparruan eta bere kabuz eta bere erabakiz egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik —tratamendu horren arduraduna den heinean—.

  Karatulako 16. puntuan erakunde kontratatzaileak datu pertsonalak tratatzeari buruz berariaz ezartzen dena eragotzi gabe ezartzen da betebehar hori.

- Kontratistak **Karatulako 15. puntuan** berariaz eta hala badagokio adierazten diren baldintzak bete beharko ditu.

21. KONTRATU-BETEBEHARRAK

Hauek dira kontratu-betebeharrak:

a) Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, haren klausuletan, agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoari zorrotz lotuta.

b) Karatulako 5. puntuan finkatutako entrega-epea betetzea.

c) Hornidura-zerbitzuak energia elektrikoko eskaera osoa bete behar du, hornidura-puntu guztietan, barnean direla energia-iturri berriztagarrietatik sortutako energia elektrikoa duten bi loteetako hornidura-puntuak.

d) Indarrean dauden eta lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak diren lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak betetzea.

e) Kontratistak kontratuaren arduraduna izendatzea.

f) Jarduera egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak bere kargura lortzea.

g) Unean-unean aplikatzekoa den indarreko araudi sektorialean xedatutakoaren arabera egitea hornidura. Ondorio horietarako, kontratistak eta kontratistaren langileek unean-unean indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen betebehar guztiak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiri guztiak izan beharko dituzte.

h) Behin betiko bermea mantentzea eta birjartzea.

i) Agiri honetako 25. baldintzan kontratistari eskatzen zaizkion estaldurak eta aseguru propioak kontratatzea edo mantentzea, gutxienez, kontratua egikaritzen den bitartean.

j) Kontratua egikaritzearen ondoriozko eragiketek hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak ordaintzea.

k) Datu pertsonalen babesaren arloan aintzat hartu behar diren betebehar guztiak betetzea eta behar bezala egiaztatzea, betiere Agiri honetan eta Karatulan aurreikusitakoaren arabera eta/edo datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den estatuko eta Europar Batasuneko araudian aurreikusitakoaren arabera.

l) Kasuan-kasuan eta berariaz, **Karatulako 16. puntuan** adierazten diren betebeharrak betetzea.

Karatulako 16. puntuan aurreikusitako betebeharrek funtsezko kontratu-betebeharren izaera dute, SBELDaren 105.3. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Beraz, betebehar horien edozein ez-betetze kontratua deuseztatzeko kausa izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi badu.

22. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

…

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzearen arloan indarrean dagoen legerian aurreikusten dena alde batera utzi gabe eta SBELDan jasotako xedapenak alde batera utzi gabe —bereziki esleitutako kontratuen publizitate-arloko betebeharrei buruzkoak eta hautagaiei eta lizitatzaileei informazioa emateari buruzkoak—, erakunde kontratatzaileak ezin izango du zabaldu lizitatzaileek eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jotzen duten informazioa. Konfidentzialtasunak eragina du, besteak beste, sekretu teknikoetan edo merkataritzakoetan, eskaintzen alderdi konfidentzialetan eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziotan, lizitazio-prozedura honetan izan zein geroagoko beste batzuetan izan.

Kontratistak kontratua egikaritzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, baldin eta Agirietan edo kontratuan informazioari izaera hori eman bazaio, edo, informazioaren beraren izaeragatik, konfidentzialtzat hartu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebehar horri **Karatulako 19. puntuan** adierazitako epean eutsiko zaio.

24. ERANTZUKIZUNA

Enpresaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko egin beharreko eragiketen ondorioz erakunde kontratatzaileari edo hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak ordaintzea.

Enpresa kontratista izango da horniduraren ezaugarrien erantzule erakunde kontratatzailearen aurrean, Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitako moduan, betiere energia elektrikoaren garraio, banaketa, merkaturatze eta hornidurako jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan edo haren ordezko araudian ezarritako erantzukizun-araubidea alde batera utzi gabe —energia elektrikoa banatzen duen enpresaren betebeharren arloan—.

Enpresa kontratista arduratuko da egiten dituen lanen eta zerbitzuen kalitate teknikoaz, baita kontratua betetzean egiten diren omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek erakunde kontratatzaileari edo hirugarrenei eragiten dizkieten ondorioez ere.

Baldintza honetan aurreikusitakoa gorabehera, sektore elektrikoaren araudian aurreikusitakoaren arabera legez edo arauz egon daitekeen beste edozein erantzukizun ere bete beharko da.

25. ASEGURUAK

Kontratistak **Karatulako 20. puntuan** adierazitako aseguruak bere kontura kontratatuko ditu, kontratuak irauten duen epe osorako, eta bertan adierazitako moduan eta baldintzetan.

26. ZIGORRAK

a) Berandutzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutu bada Agiri honetan eta/edo Karatulan adierazitako epeetako edozein betetzeko garaian, erakunde kontratatzaileak erabaki ahal izango du kontratua deuseztatzea (Agiri honetako 33. Baldintzaren arabera) edo kontratua egikaritzen jarraitzea; azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen alde sortuko dira **Karatulako 21. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalteen eta galeren ondoriozko kalte-ordainez gain.

Kontratista berandutza-egoeran sartzeko, ez da beharrezkoa izango erakunde kontratatzaileak aldez aurretik eskaera egitea.

b) Kontratatutako prestazioak gaizki egikaritzegatik edo beste edozein kontratu-baldintza ez betetzeagatik ezarritako zigorrak.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratatutako prestazioak gaizki egikaritu baditu edo beste edozein kontratu-baldintza bete ez badu, erakunde kontratatzaileak erabaki ahal izango du kontratua deuseztatzea —Agiri honetako 33. Baldintzaren arabera— edo kontratua egikaritzen jarraitzea; azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen alde sortuko dira **Karatulako 21. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalteen eta galeren ondoriozko kalte-ordainez gain.

Zigorrak kontratistari ordaindu beharreko zenbateko osotik edo partzialetik kenduko dira, eta, haietatik kendu ezin direnean, bermetik kenduko dira eta erreklamazioa egingo da bermetik gorako zenbatekoen kasuan.

Nolanahi ere, kontratua deuseztatzea edo kontratuarekin jarraitzea aukeratuz gero, erakunde kontratatzaileak bere kabuz erabaki ahal izango du kontratuarekin jarraitzea, beharrezkotzat jotzen duen denboran, bere kabuz edo hirugarren batzuen bidez; bi kasuetan, kontratistari jasanaraziko dio jarraipen horren kostua, Baldintza honetan aurreikusitako kalteen eta galeren ondoriozko kalte-ordainak eta gainerako ondorioak alde batera utzi gabe.

27. KONTRATUAK LAGATZEA

Kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati soilik laga ahal izango zaizkio, AUSAk berariaz eta idatziz baimena eman ondoren.

28. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarren batzuekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, Baldintza honetan eta SBELDaren 107. artikuluan xedatutakoaren arabera, **Karatulako 23. puntuan** adierazitako prestazioak izan ezik, hala badagokio.

Kontratistak erakunde kontratatzaileari idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua esleitu ondoren eta, beranduenez, kontratua egikaritzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta zehaztu beharko dio prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen eta zein diren azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta ordezkaria edo legezko ordezkaria. Behar bezala justifikatu beharko da azpikontratistak prestazioaren zati hori egikaritzeko gaitasuna duela, eta haren elementu teknikoen, giza baliabideen eta esperientziaren berri eman beharko da. Bestalde, kontratatzeko debekuaren eraginpean ez dagoela egiaztatu beharko da, SPKLaren 71. artikuluaren arabera —SBELDaren 107. artikuluaren 2.b) atalak berariaz adierazten duenez—.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio erakunde kontratatzaileari kontratu nagusia egikaritzen den aldian informazio hori aldatu dela, hala izanez gero, eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia ere jakinarazi beharko dio.

Azpikontratistak azpikontratazioaren mende dagoen kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia badu, nahikoa izango da inguruabar horren berri ematea haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta hori beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati aurre egiteko edo premiazko neurriak hartu behar badira eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean soilik egongo dira behartuta, eta kontratistak bere gain hartuko du, beraz, kontratua egikaritzearen erantzukizun osoa erakunde kontratatzailearen aurrean, eta Agiriei eta kontratuaren baldintzei zorrotz jarraituko zaie; era berean, bere gain hartuko du SBELDaren 27.4 artikuluan aipatzen diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak betetzea.

Erakunde kontratatzaileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuak ezagutzeak ez du aldatuko kontratista nagusiaren berariazko erantzukizuna.

Azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketa, eta ordainketa horien egiaztapena, SBELDaren 108. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira.

29. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SBELDaren 111. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Horrez gain, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du **Karatulako 24. puntuak** berariaz ohartarazten badu aukera hori dagoela, bertan aurreikusitako terminoetan eta baldintzetan.

30. HORNIDURA HARTZEA

Prestazioa kontratuan ezarritako baldintzen arabera eta erakunde kontratatzaileak nahi bezala egin denean, Kontratistak kontratua bete duela ulertuko da.

Kontratuaren indarraldian, hasierako egunetik amaierara arte, egindako kontsumoek izango dute ondasunak ematearen eta hartzearen izaera.

Kontratuaren indarraldian, erakunde kontratatzaileak zehaztuko du enpresa kontratistak egindako zerbitzua bat datorren kontratua egikaritzeko eta betetzeko ezarritako baldintzekin; horrela izan ezean, kontratatutako zerbitzuak egin ditzan eskatuko dio, baita zerbitzua jasotzean ikusitako akatsak zuzen ditzan ere. Enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen bizioen edo akatsen ondorioz, egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zerbitzuarekin, erakunde kontratatzaileak uko egin ahal izango dio zerbitzuari eta ez du ordaintzeko obligaziorik izango, edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

31. KONTRATUAREN DEUSEZTATZEA

Kontratua deuseztatzeko kausa izango dira: kontratuko betebeharrak ez betetzea (Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera) eta Administrazio Baldintza Partikularren Agirian aurreikusitako edozein kausa ez betetzea.

Edozein prozeduratan kaudimengabezia deklaratuz gero, eta, lehiaketaren kasuan, likidazio fasea irekiz gero, kontratua beti deuseztatuko da. Lehiaketa-deklarazioaren kasuan, eta likidazio fasea irekitzen ez den bitartean, AUSAk/GECASAk kontratuarekin jarraituko du, baldin eta kontratistak, haren iritziz, kontratua egikaritzeko behar diren bermeak ematen baditu.

Kontratua deuseztatzeko kasu horietako edozeinetan, eta Baldintza honetan aurreikusitako kausengatik edo legez bidezkoak diren beste edozein kausarengatik deuseztatzen denean, deuseztapena automatikoki gauzatuko da. Betekizun bakarra AUSAk/GECASAk kontratistari erabaki horren berri ematea izango da.
Horrek guztiak ez du eragotziko kontratuaren likidazio ekonomikoa egitea, ondoren xedatutakoaren arabera.

Baldintza honetan aurreikusitako kausengatik, edo legez bidezkoak diren beste kausa batzuengatik, kontratua deuseztatuz gero, deuseztatze horrek eragin ditzakeen erantzukizun ekonomikoak likidatuko dira kontratua benetan deuseztatu

ondoren. Nolanahi ere, erakunde kontratatzaileak hornidura egikaritzen jarraitu ahal izango du.

Kontratua deuseztatzen den kasu guztietan, kontratistak eskubidea izango du benetan egin eta onartutako zerbitzu guztien prezioa jasotzeko, hasiera batean bederen.

Kontratua enpresa kontratistari egotz dakiokeen arrazoi baten ondorioz deuseztatzen bada, enpresa kontratistak AUSAri/GECASAri eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko dizkio. Kalte-ordain hori, gutxienez, bi zenbateko hauen artean dagoen aldearen araberakoa izango da: batetik, deuseztatu den kontratuaren arabera, AUSAk/GECASAk kontratua deuseztatu den egunetik hasiera batean kontratua amaitzea aurreikusten zen datara bitarteko aldian ordaindu behar zuen zenbatekoaren eta, bestetik, AUSAk/GECASAk beste merkaturatze-enpresa batekin egin behar duen kontratu berriaren arabera ordaindu behar duen zenbatekoaren arteko aldearen araberakoa.

Kontratistari ordaindu gabeko fakturazioaren gainean edo kontratistak emandako behin betiko bermearen gainean gauzatuko da kalte-ordaina, eta, zenbateko horretatik gorako zenbatekoak direnean, AUSAk/GECASAk erreklamazio gehigarria egingo du.

Deuseztapena bi aldeen adostasunez gertatzen denean, aldeen eskubideak haiek baliozkotasunez ezarritakora egokituko dira.

32. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da, eta, haren prestakuntzari eta esleipenari dagokionez, Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honek eta Baldintza Teknikoen Agiriak arautuko dute; eta, horietan aurreikusten ez den orori dagokionez, SBELDaren xedapenek.

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, kontratua arautuko dute Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honek, Baldintza Teknikoen Agiriak eta, horietan aurreikusten ez den orori dagokionez, zuzenbide pribatuko arauek.

Horrez gain, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua eta SPKL legea izango dira aplikatzekoak, Agiri hau arau-testu horietara berariaz bidaltzen duen guztietan.

Edonola ere, kontratua datu pertsonalak babestearen arloko Estatuko eta Europar Batasuneko araudiari lotuko zaio.

33. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenak izango du lizitazioaren garapenari eta, oro har, kontratuaren prestaketa eta esleipen faseari buruzko auziak ebazteko eskumena, baita kontratu-aldaketei buruzko auziak ebazteko eskumena ere, baldin eta aldaketak SBELDaren 110. eta 111. artikuluetan ezarritakoa ez betetzearen ondorioz aurkaratzen badira.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, dagokion erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoari, SBELDaren 119. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Bestalde, jurisdikzio zibilak izango du eskumena aldeen artean sortzen diren kontratuaren ondorioei buruzko eta kontratua betetzeari eta deuseztatzeari buruzko eztabaidak ebazteko.

Kontratuari buruzko auziren bat izanez gero, bi aldeak Donostiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA
ABAL-EREDUA
(BEHIN BETIKO BERMEA)

[…] (kreditu-erakundearen edo elkarrekiko berme-erakundearen izen soziala) erakundeak, IFK […] duenak, eta jakinarazpenenetarako eta errekerimenduetarako […] helbidea duenak, eta, haren izenean, […] (ahaldunaren izen-abizenak) jaunak/andreak, egintza honetan erakunde hura ordezkatzeko behar besteko ahalordea duenak —dokumentu honen behealdean aipatzen den ahalordeak askiestearen arabera—, […] (abalatuaren izen-abizenak edo izen soziala), IFK […] duena, ABALATZEN DU […]-(r)en aurrean, […] euroko zenbatekoagatik, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAri eta Gestión de Centrales del Añarbe SAri energia elektrikoa hornitzeko kontratuaren ondoriozko betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean deklaratzen du Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela. Abal hori modu solidarioan ematen da, zergapeko nagusiari dagokionez, baina eskusio- eta zatiketa-onurari zehazki uko eginez eta […]-(r)en lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoarekin.

Abal hau indarrean izango da […]-(e)k ezeztatzea edo itzultzea baimentzen duen arte.

……., ….ko …….aren ..a

[sinadura]

II. ERANSKINA
NOTARIO-AKTAREN EREDUA, BALDIN ETA LIZITATZAILEAK ESKATZEN ZAION KAUDIMENA EGIAZTATZEKO ETA/EDO BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA EGIAZTATZEKO, BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN ETA/EDO BITARTEKOETAN OINARRITU NAHI BADU.

…… jaunak/andreak, NAN …….…….. duenak, ……..…… enpresaren, IFK …….…… duenaren, legezko ordezkari gisa, aditzera ematen du irismen osoan ezagutzen dituela Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAri eta Gestión de Centrales del Añarbe SAri energia elektrikoa hornitzeko kontratazio-lizitazioaren baldintzak —……..…. (enpresa lizitatzailearen izena) lizitatzaileak lizitazio horretan parte hartzen du—. Bestalde, adierazten du borondate ezeztaezina duela lizitatzaile horren esku jartzeko, esleipendun suertatuz gero, kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren baliabideak (berariaz onartuko da Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa, eta ……..…(e)k berariaz baimendu beharko du hura ordeztea edo aldatzea).

Idazki hau Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAri aurkezteak konpromiso hori onartzearen ondorioak izango ditu, baldin eta lizitatzailea esleipendun suertatzen bada.

…….., ….ko ……aren ..a

[sinadura]

III. ERANSKINA
KONTRATAZIO AGIRI EUROPAR BAKARRA

Kontratatzailearen profilean lortu ahal izango da Kontratazio Agiri Europar Bakarraren eredua, pdf formatuan zein xml fitxategian.

IV. ERANSKINA
GIZA BALIABIDEAK ETA/EDO BALIABIDE MATERIALAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

……..… jaunak/andreak, helbidea ……..…… duenak eta NAN ……..… duenak, bere izenean edo ……..(r)en ordezkaritzan —helbidea ……..…… duena eta IFK ……..…… duena—, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAri eta Gestión de Centrales del Añarbe SAri energia elektrikoa hornitzeko lizitazioaren jakitun, honako idazki honen bidez

ADIERAZTEN DU:

Esleipenduna izanez gero, konpromisoa hartzen duela kontratazioa arautzen duen Karatulako 10. puntuan eskatzen diren gutxieneko giza baliabideak eta/edo baliabide materialak kontratua egikaritzeari atxikitzeko.

Eta hala jasoaraz dadin, eta bidezko ondorioak izan ditzan, egin du giza baliabideak atxikitzeko honako konpromiso hau, ……..(e)n, ….ko …….aren ..(e)an.

[sinadura]

V. ERANSKINA
FORMULAK ERABILIZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA

……..… jaunak/andreak, helbidea ……..…… duenak eta NAN ……..… duenak, bere izenean edo ……..(r)en ordezkaritzan —helbidea ……. duena eta IFK ……. duena—, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAri eta Gestión de Centrales del Añarbe SAri energia elektrikoa hornitzeko lizitazioaren jakitun, honako idazki honen bidez

ADIERAZTEN DU

Lehenik.- Konpromisoa hartzen duela Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAri energia elektrikoa hornitzeko, betiere hornidura horren kontratazioa arautzen duten Administrazio Baldintza Partikularren Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian xedatutakoaren arabera.

Bigarren.- Konpromisoa hartzen duela Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAri energia elektrikoa hornitzeko, Agiri honen karatulan ezarritako formularen arabera aplikatzekoak diren koefiziente hauei jarraituz:

Sarrera-tarifa	Lizitatzaileen eskaintzetarako koefizienteak	**Energia-aldia**					
		1. A	**2. A**	**3. A**	**4. A**	**5. A**	**6. A**
6.2 TD	K1						
	K2						
6.1 TD	K1						
	K2						
3.0 TD	K1						
	K2						
2.0 TD	K1						
	K2						

Hirugarren.- Kontratua zuzentzen duen kontratu-dokumentazioa ezagutzen duela, eta berariaz bere gain hartzen duela eta osorik onartzen duela.

……., ….ko ……aren ..a

[sinadura]

VI. ERANSKINA
FORMULAK ERABILIZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA

……..… jaunak/andreak, helbidea …… duenak eta NAN ……..… duenak, bere izenean edo ……..(r)en ordezkaritzan —helbidea ……. duena eta IFK ……. duena—, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAri eta Gestión de Centrales del Añarbe SAri energia elektrikoa hornitzeko lizitazioaren jakitun, honako idazki honen bidez

ADIERAZTEN DU

Lehenik.- Konpromisoa hartzen duela Gestión de Centrales del Añarbe SAri energia elektrikoa hornitzeko, betiere hornidura horren kontratazioa arautzen duten Administrazio Baldintza Partikularren Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian xedatutakoaren arabera.

Bigarren.- Konpromisoa hartzen duela Gestión de Centrales del Añarbe SAri energia elektrikoa hornitzeko, Agiri honen karatulan ezarritako formularen arabera aplikatzekoak diren koefiziente hauei jarraituz:

Sarrera-tarifa	Lizitatzaileen eskaintzetarako koefizienteak	**Energia-aldia**					
		1. A	**2. A**	**3. A**	**4. A**	**5. A**	**6. A**
6.2 TD	K1						
	K2						
2.0 TD	K1						
	K2						

Hirugarren.- Kontratua zuzentzen duen kontratu-dokumentazioa ezagutzen duela, eta berariaz bere gain hartzen duela eta osorik onartzen duela.

……., ….ko ……aren ..a

[sinadura]

VII. ERANSKINA
ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

……..… jaunak/andreak, helbidea …….…… duenak eta NAN ……..… duenak, bere izenean edo ……..(r)en ordezkaritzan —helbidea ……. duena eta IFK ……. duena—, gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa izanik eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAri eta Gestión de Centrales del Añarbe SAri energia elektrikoa hornitzeko lizitazioaren jakitun, honako idazki honen bidez

ADIERAZTEN DU

Lehenik.- Eskaintza hau aurkezten den egunean, ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuen eraginpean —9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora—.

Bigarren.- Berariaz onartzen duela, esleipendun izanez gero, erakunde kontratatzaileak gardentasun instituzionala ematea lizitazioko, esleipeneko eta egikaritzeko prozesuen ondoriozko datu guztiei, prozesua amaitu arte.

……., ….ko …….aren ..a

[sinadura]